

Interes orokorreko xedapenak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.), **2022ko azaroaren 04etik 11rako astea.**

I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

II.- XEDAPEN OROKORRAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2022/11/05

- **NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKADURA MINISTERIOA. Lehentasunezko elkarte asoziatiboak.** APA/1056/2022 Agindua, azaroaren 4koa, zeinaren bidez aldatzen den ekainaren 27ko 550/2014 Errege Dekretuaren I. eranskina. Errege Dekretu horren bidez garatzen dira Lehentasunezko Elkarte Asoziatiboak aitortzeko eta horiek Lehentasunezko Elkarte Asoziatiboen Erregistro Nazionalan inskribatu eta baja emateko baldintzak eta prozedura; hori nekazaritzako produktuen arloko kooperatiben eta beste elkarte batzuen integrazioa sustatzeko abuztuaren 2ko 13/2013 Legean ezarrita dago. **18149 xedapena - 4 or.**
- **GAI EKONOMIKOEN ETA ERALDAKETA DIGITALAREN MINISTERIOA. Udal hauteskundeak. Atzeritarren hauteskunde-errola.** ETD/1057/2022 Agindua, azaroaren 3koa, zeinaren bidez aldatzen den uztailaren 20ko EHA/2264/2010 Agindua. Agindu horren bidez, Espainian bizilekua dutenen udal-hauteskundeetarako hautesle-errola osatzeko arauak eta jarraibide teknikoak ematen dira, Espainiarekin akordioa izenpetua duten herrialdeetako nazionalen errola, hain zuzen. **18150 xedapena - 2 or.**

2022/11/08

- **GORTE NAGUSIAK. Premiazko neurriak.** Ebazpena, 2022ko azaroaren 3koa, Diputatuen Kongresuarena, zeinaren bidez agintzen den argitara dadila urriaren 18ko 18/2022 Errege Lege-dekretua baliozkotzeko akordioa. Horren bidez, energia kontsumitzaileen babesa indartzeko neurriak eta gas naturalaren kontsumoa murrizten laguntzeko neurriak onesten dira, "Segurtasun + zure energiarentzat (+SE)" plana aplikatzeari dagokionez, bai eta sektore publikoaren zerbitzuko langileen ordainsariei eta lehortek eragindako aldi baterako nekazaritza-langileak babesteari buruzko neurriak ere. **18252 xedapena - 1 or.**

2022/11/10

- **OGASUNAREN ETA FUNTZIO PUBLIKOAREN MINISTERIOA. Administrazio-kontratazioak.** HFP/1070/2022 Agindua, azaroaren 8koa, zeinaren bidez martxoaren 1eko 3/2022 Errege Lege-dekretuan aurreikusitako obra-kontratuen prezioen salbuespenezko berrikuspenerako kontuan hartzeko beste material batzuen zerrenda ezartzen den. **18445 xedapena - 2 or.**

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

2022/11/07

- **SEGURTASUN SAILA.** AGINDUA, 2022ko urriaren 14koa, Lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuarena, zeinaren bidez argitara ematen baita nola bete behar dituzten erregistro-betebeharrak eta Ertzaintzari jakinarazteko betebeharrak hondakin metalikoak kudeatzen dituzten zentroekin, txatarraren edo hondakin-produktuen handizkako merkataritza-establezimenduekin lotutako jarduerak egiten dituzten pertsona fisiko edo juridikoek. **4749e xedapena - 5 or.**

E.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari ofiziala)

B.A.O. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

2022/11/09

- **BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA. Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saila.** Bizkaiko Foru Aldundiaren 125/2022 FORU DEKRETUA, azaroaren 8koa, zeinaren bidez aldatu egiten den Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 22ko 60/2011 Foru Dekretua, gizarte inklusiorako laguntza berezia arautzen duena. **I-949 xedapena- 2 or.**

2022/11/10

- **BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA. BIZKAIKO BATZAR NAGUSIAK.** 2022ko urriaren 19ko Osoko Batzarrean hartutako erabagia, foru dekretu arauemaile hau berresten dauena: 4/2022 Foru Dekretu Arauemailea, uztailaren 26koa, zeinaren bidez neurri jakin batzuk egokitzen baitira balio erantsiaren gaineko zergan eta energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zergan Ukrainako gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei aurre egiteko. **I-928 xedapena- 1 or.**

- **BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRATZIOA. BIZKAIKO BATZAR NAGUSIAK.** Inflazioaren Bilakaerari Aurre Egiteko Premiazko Zerga-neurriak hartzen dituen abuztuaren 24ko 5/2020 Foru Dekretu Arauemailea baliozkotzeko 2022ko urriaren 19ko Osoko Batzarrean hartutako erabagia. **I-929 xedapena- 1 or.**

2022/11/11

- **BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRATZIOA. Ogasun eta Finantza Saila.** 6/2022 FORU DEKRETU ARAUEMAILEA, azaroaren 2koa. Honen bidez, aldatzen dira: batetik, Balio Erantsiaren gaineko Zerga eta, bestetik, Finantza Transakzioen gaineko Zergari buruzko ekainaren 22ko 4/2022 Foru Araua. **I-935 xedapena- 3 or.**

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

E.B.A.O.(Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala)

2022/11/07

- **BATZORDEAREN JAKINARAZPENA.** COVID-19aren egungo agerraldiaren testuinguruan ekonomia babestera bideratutako Estatuko laguntza-neurriei dagokien Denbora Esparruaren aldaketa. **Disposición C 423/9 - 1 pág.**

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: serviciosjuridicos@mutualia.es

.....

MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL Nº 2
HENAO, 26 - BILBAO